

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 3334

*AGINDUA, 2019ko ekainaren 28koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren bidez araututako dirulaguntzak emateko 2019ko deialdia egiteko dena. Dekretu horren bidez, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak arautzen dira (Lehiatu Sustapena Programa).*

Irailaren 23ko 179/2014 Dekretua nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzei buruzkoa da –Lehiatu Sustapena Programa–, eta nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak EAetik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzen erregimena ezartzen eta arautzen du.

Aipatutako dekretuaren 9. artikulua xedatzen duenez, urtero, dekretuan ezarritako laguntzeta-rako deialdia egingo da, eta artikulua horretan jasotzen diren zenbait alderdi zehaztu.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko xedez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak dirulaguntzen plan estrategiko bat dauka, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko martxoaren 6ko Aginduaren bidez onartua, eta haren barruan dago agindu honetako deialdiko dirulaguntza, zeina euskadi.eus webgunean kontsulta baitaiteke.

Hori dela-eta, aurrekontu-zuzkidura nahikoa dagoenez Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak (2019ko ekitaldirako luzatuak) onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legeak baimendutako kredituen arabera, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-araubideari dagokionez indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren IX. tituluaren aurrekontua luzatzeko araubideari buruz ezarrita dagoenarekin bat etorritik, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko deialdi hau egiten da, 2019ko ekitaldirako.

Horiek horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen xedea da irailaren 23ko 179/2014 Dekretuak araututako dirulaguntzak emateko 2019ko deialdia egitea. Dekretu horren bidez, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak arautzen dira (Lehiatu Sustapena Programa).

Bigarrena.– Betekizunak.

Agindu honetan iragarritako edozein laguntzaren onuradun izateko, irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako betekizunaz gain, puntu honetan ezarritako betekizunak bete behar dira. Betekizun horiek Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko betekizunak jasotzen dituzte. Hauek dira:

1.– Konkurtso-deklarazioa eskatu ez izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo ez izana, konkurtsoan deklaratu ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren pean ez egotea edo desgaitua ez izatea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

2.– Kausaren batean errudun deklaratu izateagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen amaiera irmoa ebatzita ez izatea.

3.– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez egotea ekainaren 26ko 1/2014 Legean (kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituena) ezarritako kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, horietan ezarritako baldintzetan.

4.– Erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea zerga-egoitza.

5.– Elkarteen kasuan, horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoko 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan nahastuta ez egotea. Ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, administrazio-prozedura ez etetea, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere ebazpen judizial sendorik esleitzen ez bada, haren arabera, kasuan kasuko inskripzioa egin ahal izango baita dagokion erregistroan.

6.– Berreskuratze agindu baten menpe ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea, eskabide-eredua eta dokumentazioa.

1.– Irailaren 23ko 179/2014 Dekretuak ezarritako laguntza deialdian sartzeko eskabideak aurkezteko epea, 2019ko ekitaldirako, hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Agindu honen II. eranskinean dago jasota laguntza hau eskatzeko inprimakiaren edukia.

2.– Irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren 8. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 artikuluan xedatutakoa betez:

a) Pertsona fisikoek modu presentzian zein elektronikoa aurkez ditzakete eskabideak.

– Modu presentziala: eskabideak –behar bezala beteta– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin bat.

– Modu elektronikoa: eskabideak euskadi.eus egoitza elektronikoa sartuta aurkeztuko dira, ebazpen honen 3. apartatuan adierazitako helbideen bidez.

Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko moduak (elektronikoa zein presentziala izan) ez du behartuko aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak modu berean egitera, edonoiz alda daiteke eta.

b) Pertsona juridikoek eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluko 2. zenbakiko a), b), c) eta d) apartatuetan aurreikusitako gainerako subjektuek bitarteko elektronikoa erabilita aurkeztuko dituzte eskabideak, 3. apartatuan adierazitako helbide elektronikoa erabilita.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak modu presentzian zein elektronikoa nola izapidetu jakiteko xehetasunak euskadi.eus egoitza elektronikoa honetan eskura daitezke: [https://www.euskadi.eus/ayudas\\_appa/](https://www.euskadi.eus/ayudas_appa/) – Programa Lehiatu Promoción 2019 (Erreferentzia: 0082206) eta [https://www.euskadi.eus/laguntzak\\_naep/](https://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/) – Lehiatu Sustapena Programa 2019 (Erreferentzia: 0082206).

Eskabidea egin osteko izapideak helbide elektronikoa honen bidez egingo dira: <http://www.euskadi.eus/micarpeta> eta <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

4.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, artikulua hauetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkariak: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikulua.

5.– Prozeduraren eskuliburua onartzen da, eta eskuragarri egongo da <http://www.euskadi.eus> web-orrian, baita argitara eman ere agindu honen I. eranskinean.

6.– Eskatzaileek, laguntza-eskabidearekin batera, agindu honen III. eranskinean adierazitako dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute. Dekretu arautzailearen 8. artikuluan 3.c) puntuan adierazten den memoria xehatua egiteko, ebazpen-zati honen 3. apartatuan adierazitako web-helbideko «fitxa-txostena» bete beharko da.

7.– Enpresa txiki eta ertainek (ETE) izaera hori egiaztatu beharko dute, agiri hauek aurkeztuta:

A) Pertsona fisikoentzat: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kopia, ekonomia-jardueren eranskinarekin batera, eskaera aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiarena.

B) Pertsona juridikoentzat: eskaera aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiari dagokion sozietateen gaineko zergaren kopia.

Agiriek batera, dokumentazioak erakusten duen egoera aldatu ez dela dioen adierazpena.

8.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. Hala eta guztiz ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori laguntza-eskabidean, eta, hala egiten badu, dagokion ziurtagiria edo eskatutako agiria aurkeztu beharko du.

9.– Eskatutako dokumentazioa administrazio honetan edo beste batean entregatzen denean eta eskatzaileak berariaz deklaratu badu dokumentu horietan ez dela aldaketarik egin, horiek aurkeztutzat joko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. paragrafoaren 28. artikuluan ezarritakoarekin bat. Eskatzaileak adierazi beharko du zein Administraziotan eta zein unetan aurkeztu diren. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, dokumentazioa aurkeztu beharko du.

10.– Nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira laguntza-eskabidea eta eskatutako agiria. Ildo horretatik, eskatzaile bakoitzak hautatutako hizkuntza erabiliko da eskabidea aurkeztu ondoko jardueretan, prozedurak irauten duen bitartean, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin bat etorriz.

Laugarrena.– Betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzen onuradunek, irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako betekizunez gain, dekretu horren 15. artikuluan eta ebazpen-zati honetan jasotako betebeharrak bete behar dituzte. Izan ere, horietan jasota daude Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetako betebeharrak. Hauek dira:

14.1 artikuluari dagokionez:

a) Dirulaguntza eman izanaren oinarrian dagoen jarduera egitea, jarrera hori hartzea, proiektua egikaritzea edo helburua betetzea.

b) Dirulaguntza ematen duen erakundeari edo, hala badagokio, erakunde laguntzaileari frogatzea betekizunak eta baldintzak betetzen direla, dirulaguntzaren xede den jarduera egin dela eta haren helburua bete dela.

c) Dirulaguntza ematen duen erakundeak edo, hala badagokio, erakunde laguntzaileak egingo dituzten egiaztapen-ekintzak betetzea, eta eskumena duten kontrol-organoeak –estatukoek zein Europar Batasunekoek– finantza-arloa egiaztatze eta kontrolatzeko egin dezaketen beste edozein ekintza ere bai. Horretarako, ekintza horiek gauzatzean eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten bestelako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideak lortu izanaren berri ematea dirulaguntza ematen duen organoari edo erakunde laguntzaileari. Jakin bezain laster jakinarazi behar zaio, eta betiere jasotako funtsen erabilpena justifikatu baino lehen.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea, arauz zehaztutako eran, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen.

f) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuak izatea onuradunari kasu bakoitzean aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriak eta sektorekoak eskatutako baldintzetan, eta dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatutako kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko oro, egiaztatze- eta kontrol-jardun egokia bermatzeko.

g) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gorde behar dituzte, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrolatzeko ekintzak gauzatzeko erabil baitaitezke.

h) Lege honen 18. artikuluan 4. apartatuan jasotako zabalkunde-neurriak hartzea.

i) Lege honen 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan jasotako funtsak itzultzea.

46. artikuluari dagokionez, lankidetzarako betebeharra ezartzen da. Horren arabera:

1.– Onuradunek, erakunde laguntzaileak eta dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin lotuta dauden hirugarrenek lankidetzara eta beharrezko agiriak eman beharko dizkiete honako hauei, kontrol-jarduerak egiten dituztenean eta dirulaguntza ematen duen administrazioaren esparruaren barruan: Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailatza Nagusia, autonomia-erkidegoena edo toki-korporazioena. Horiez gain, Europar Batasunaren araudiaren arabera finantza-kontrolerako egitekoak esleituta dituzten erakundeei ere eman beharko diete informazio hori; xede horretarako, ahalmen hauek izango dituzte:

a) Egiaztatu beharreko dokumentazioa haien esku jarri behar dute, are programa eta fitxategi informatikoak ere.

b) Negozio-lokaletan sartzen utzi behar diete, bai eta dirulaguntzaren xede izan den jarduera egiten den establezimendu eta toki guztietan eta dirulaguntzaren kargura finantzatutako eragiketarik egiazkoak eta erregularrak direnez egiaztatzeko arakatu beharreko tokietan ere.

c) Dirulaguntza oker jaso, gozatu edo erabili delako zantzuak agertzen dituzten eragiketen inguruko fakturak edo antzeko edo ordezeko dokumentuak gorde behar dituzte, edo haien kopiak eman.

d) Dirulaguntza kobratu den finantza erakundeko banku kontuko edo funtsak baliatzeko erabili den kontuko informazio guztia eman behar diete.

2.– Betebehar hori betetzen ez bada, erresistentzia, aitzakia, oztopatzea edo ezezkoa dela ulertuko da, lege honen 37. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe bestelako zehapenak ere jarri ahal izatea.

Horrez gain, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak araututako Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 18.4 artikulua aplikatuz, onuradunak behar bezalako publikotasuna eman behar dio diruz lagundutako jardueraren finantzaketaren izaera publikoari. Onuradunek jasotako dirulaguntzen eta laguntzen berri eman beharko dute, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutako moduan eta baldintzetan.

Bosgarrena.– Aurrekontu-zuzkidura.

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren konturako aurrekontu-kredituak, deialdi honetarako, bostehun mila (500.000) eurokoak dira.

Seigarrena.– Onuradun bakoitzari gehienez emango zaion laguntzaren zenbatekoa.

Onuradun bakoitzari gehienez sei mila (6.000) euroko laguntza emango zaio, dekretu arautzailearen 6. artikuluko 1A paragrafoan xedatzen diren ekintza indibidualetarako, eta hogeita bi mila (22.000) eurokoa agindu arautzaile horren 1B paragrafoan zehaztutako sustapen-programetarako.

Dena den, honako araudi hauetan ezarritako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak errespetatu beharko dira: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduan, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko –arrantzaren eta akuikulturaren alorrean– de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2014ko ekainaren 27ko Batzordearen 717/2014 (EB) Erregelamenduan; horiek aplikagarri izango dira baldin eta enpresa onuraduna nekazaritza edo arrantza sektorekoa bada, eta, hori horrela izanik, lehenengo kasuan laguntza 200.000 eurokoa izango da, hiru zergalditan ematekoa; bigarren kasuan, berriz, 30.000 eurokoa izango da, hiru zergalditan ematekoa.

Zazpigarrena.– Diruz lagun daitezkeen ekintzak.

Honako ekintza hauek sartu ahal izango dira dirulaguntza deialdi honetan:

A) Ekintza indibidualak. Jarduera hauek hartzen dira ekintza indibidualtzat:

1.– Izaera profesionala duten nazioarteko azoketan edo merkataritza-lehiaketetan erakusketari gisa parte hartzea, merkataritza-jarduerak garatzeko, produktuak erakutsiz erakusmahai indibidual edo partekatuetan.

2.– Azoketara joatea, hau da, eskatzaileak bisitaldiak egitea profesionaleri zuzendutako nazioarteko azoketara.

3.– Zuzeneko misioak egitea eta estatuz kanpoko merkatuetan produktuak aurkeztea, hau da, enpresa eskatzailearen produktuak aurkezteko edo dastatzeko ekintzak egitea, atzerriko merkatu horietan merkataritza-harremanak eta produktuen esportazioa areagotzeko.

4.– Alderantzizko misioak egitea: atzerriko erosleei edo iritzi-emaleei gonbitea egitea enpresen ekoizpen-establezimenduetan bisitaldiak egin ditzaten; Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik egingo dira bisitaldi horiek,

5.– Estatutik kanpoko merkatuetako salmenta-puntuetan sustapen ekintza zehatz eta espezifikoak egitea, produktuaren publizitatea eginez eta hura dastatzeko aukera emanez, konsumitzailearen oniritzia lortzeko.

6.– Ikus-entzunezko katalogoak eta materialak, hau da; enpresaren irudiari eta produktuei buruzko dibulgazio-materialak egitea, gutxienez atzerriko hizkuntza batean.

#### B) Sustapen-programak:

1.– Sustapen-programa datza gutxienez hiru herrialdetan A apartatuko sei jarduera jasotzen dituen plan edo programa integral bat egitean. Hortik kanpo geratzen da enpresari kanpoko zerbitzuak ematen dizkioten zerbitzu profesionalen kontratazioa, eskatzailearen produktuak sustatzeko programa garatzeko aholkularitzarako.

2.– Ez da dirulaguntzarik emango azoketan parte hartzeko, baldin eta azoka horietan erakusmahai bat jarri badu Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, edo Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberak, edo kanpoko merkatuan enpresei laguntza finantzarioa ematen dieten antzeko erakundeek, eta erakunde horiek euskal enpresei azoka horietan parte hartzeko tokia eskaini badiete. Hala ere, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte aipatutako erakundeei azoketan tokia eskatu baina baiezko erantzunik jaso ez duten enpresek.

Zortzigarrena.– Guztizko zenbatekoa, eremu geografikoaren arabera.

Joan-etorrietarako, ostaturako eta mantenurako gastuei dagokienez, jarduera bakoitzean, hauek dira guztizko zenbatekoak eremu geografikoaren arabera banatuta:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoa (alderantzizko misioak baino ez) eta Estatuko gainerako tokiak: mila (1.000) euro.

2.– Europa: mila eta bostehun (1.500) euro.

3.– Amerika, Afrika, Asia eta Ozeania: bi mila eta bostehun (2.500) euro.

Bederatzigarrena.– Justifikazioa.

Egikaritutako gastuak justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Fakturen eta ordainketen Excel fitxategia.
- Eginiko jarduera bakoitza justifikatzeko fitxa-txostenak.
- Eginiko gastuen fakturak eta ordainketa-ziurtagiriak.
- Jarduerak egin direla frogatzen duten euskarri-dokumentuak.

Agindu honen hirugarren ebazpen-zatiaren 3. puntuan adierazitako helbidean jasota dauden jarraibideen arabera aurkeztuko da gastuen justifikazioa.

Hamargarrena.– Bateriaezintasuna.

Irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, dekretu horretan araututako eta agindu honen bidez deitutako laguntza bateragarria da beste edozein erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako beste edozeinekin, betiere dirulaguntza guztien baturak gainditzen ez baditu 11. artikulua egoera bakoitzerako ezarritako gehieneko ehunekoak. Muga hori gaindituz gero, programa honen babespean emandako laguntzari kendu egingo zaio gaindikinari dagokion zenbatekoa.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa alde batera utzi gabe, dekretu honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira ardoa sustatzeko laguntzekin. Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1308/2013 Erregelamenduaren (EB) 45. artikuluan ezarritakoa aplikatuz ezarri ziren ardoa sustatzeko laguntzak (1308/2013 Erregelamendua, Nekazaritza-produktuen merkaturaren antolamendua sortu eta honako erregelamendu hauek indargabetzen dituenak: 922/72 (EEE); 234/79 (EE); 1037/2001 (EE); eta 1234/2007 (EE)). Beste laguntza batzuekin ere bateraezinak izango dira, espresuki horrela ezarrita badago.

Hamaikagarrena.– Datuak babestea.

Agindu hau aplikatzean jasotako datu pertsonalak lankidetzarako laguntzei buruzko fitxategian jaso eta tratatuko dira, zeinaren helburua baita agindu honen bidez deitutako laguntza-espeditzeak tramitatzea eta ebaztea. Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza da fitxategiaren arduraduna, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren aurrean gauzatuko ditu dagozkion eskubideak. Eta hori guztia Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta indarreko gainerako araudian xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

Hamabigarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete interesdunek Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da epea.

Hamahirugarrena.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 28a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

## I. ERANSKINA

NEKAZARITZA-, ELIKAGAI-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA-PRODUKTUAK EAE-TIK KANPOKO  
MERKATUETAN SUSTATZEKO LAGUNTZAREN GASTUAK KUDEATU ETA JUSTIFIKATZEKO  
ESKULIBURUA

## SARRERA

Irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren babespean egin da eskuliburu hau. Dekretu horretan, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzen erregimena ezarri eta arautzen da.

Euskal nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan egoteko erraztasunak ematea da laguntza hauen helburua. Nekazaritza- eta elikagai-industriaren ekoizpen- eta merkataritza-egiturek gaitasuna dute lehen sektoreko lehengaien eraldaketatik sortutako produktuak merkaturatzeko. Laguntza hauen bidez, indartu egingo da onuradunek kanpoko merkatuetan egiten duten sustapen-lana, bai beste merkatu batzuetara zabaldu daitezen, bai egun duten presentzia sendotu dadin.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak dauka eskabideak izapidetzeko ardura, eta proiektuen balorazioa egiteko balorazio-batzorde bat eratuko da. Aurkeztutako eskabideak eta agiriak aztertu ondoren, balorazio-batzordeak egiten duen proposamena ikusirik, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak emango du deialdiaren ebazpena, eskatutako laguntzak eman ala ez eman ebazteko; ebazpen bakarra emango du.

Neurri honetara bideratutako funtsak behar bezala kudeatzeko, funtsezkoa da laguntzaren onuradunek laguntza emateko baldintzen berri izatea, bai eta laguntzen hartzaile gisa hartzen dituzten erantzukizunak ezagutzea ere.

Dirulaguntza emanda, onuradunak, diruz lagundutako sustapen-ekintzak aurrera eramateko erantzukizuna hartzeaz gain, ekintza horiek egin direla eta ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duten frogak aurkezteko erantzukizuna ere hartzen du. Horrela, bada, alderdi horiek behar bezala ez justifikatzeak ekintza ez egiteak dakartzan ondorio berak ekarriko ditu.

Ondoren, orientabide gisa, kasu bakoitzean aurkeztu beharreko egiaztagiria daude adierazita. Helburua da laguntza jasotzen dutenei orientabideak ematea diruz lagun daitezkeen gastuak behar bezala justifikatzeko orduan.



## AUKERA DAITEZKEEN GASTU-MOTA OHIKOENAK ETA HAIEN EGIAZTAPENA

Gastu-mota	Egiaztagiriak	Egin beharreko egiaztapena	Aukeratu daitekeen zenbatekoa
Aukeratu daitekeen edozein sustapen-gastu fakturatu.	Emandako zerbitzuen faktura zehaztua, edo fakturan ez bada gastuen zehaztapenik azaltzen, eskainitako zerbitzuak behar bezala banakatuta agertzen diren aurrekontua.	Jaulkitze-data. Faktura-zenbakia. Jaulkitzailearen eta onuradunaren izen soziala eta IFZ. Egindako gastuen deskribapena Gastuen aleko zenbatekoak. BEZaren zehaztapena.	Fakturaren zenbatekoa, BEZa kenduta, salbu eta berreskuragarria ez bada. BEZa diruz laguntzeko moduko gastua izango da, baldin eta onuradunak ordaintzen badu eta ez bada berreskuratzea edo konpentsatzekoa. Berreskuratu ezin daitekeen BEZa diruz laguntzeko modukoa izan dadin, onuradunaren merkataritza-peritu batek edo legezko auditore batek egiaztatu beharko du ordaindutako zenbatekoa ez dela berreskuratu eta onuradunaren kontabilitatean gastu modura jaso dela.
Aukeratu daitekeen edozein sustapen-gastu, egiaztagiri bidez justifikatua (pertsona fisikoak bakarrik: itzultzaileak, interpreteak, laguntza-langileak).	Egindako zerbitzua egiaztatzeko ordainagiria, zerbitzua eman duenaren datu pertsonalak adierazita.	Jaulkitze-data. Egindako gastuen deskribapena.	Ordainagiriaren zenbatekoa, beste herrialde batean moneta-aldaketagatik finantza-erakundeak aplikatutako komisioa kenduta eta onuradunaren konturakoak diren banku-kudeaketako beste gastu batzuk kenduta, hala badagokio.
Lekualdatze nagusia; enpresaren egoitzatik sustapen-ekitaldia izango den tokiraino sartzen da (hegaldea, tren, autobusa, alokairuko kotxea, norberaren autoa, taxia eta aparkalekua, lekualdatze nagusiaren ondorioz behar direnak).	Bidaia-agentziaren, aire-konpainiaren... faktura. Txartelaren edo ibilgailuratzeko txartelaren jatorrizkoa. Norberaren kotxearen kasuan, norberak egindako gastuen kontua, gasolindegiko tiketak, autopistako tiketak, etab. aurkeztuta.	Faktura egiaztatzea (fakturatutako edozein gastu ikustea). Bidaiaren datak jardueraren datakin bat etortzea. Turista-klaseko txartelak bakarrik izango dira diruz laguntzekoak. Ibilgailuratzeko txartelaren datuak. Sustapen-lanetarako kontratatutako enpresako langileak bakarrik (izaera hori justifikatuta).	Txartelaren edo fakturen zenbatekoa (jaulkipen-gastuak barne). Norberaren kotxearekin egindako lekualdatzeetan 0,29 euro/km ordainduko da, eta gehienez ere 500 euro.
Ostatua (gosaria barne).	Hotelaren/agentziaren faktura, honako hau adierazita: ● Hotela. ● Ostatu-hartzaileen izena. ● Gela-mota. ● Ostatu-erregimena. ● Egonaldiaren egunak. ● Zenbatekoa, ostatu-hartzaile bakoitzeko. ● BEZaren zehaztapena	Faktura egiaztatzea (fakturatutako edozein gastu ikustea). Egonaldiaren datak jardueraren datakin bat etortzea. Langile propioak edo sustapen-lanetarako kontratatutako enpresako langileak bakarrik (izaera hori justifikatuta).	Fakturaren zenbatekoa, eta gehienez ere: ● 120 euro/egun Espainian. ● eta 180 euro/egun Espainiatik kanpo.
Mantenua (bertan sartzen dira jatekoak, tokiko garraioa, telefonoa, internet, garbitegia, logelako edaritegia, etab.)	Joan-etorriko txartelak. Egindako gastuen fakturak edo kuxkako tiketak, gastuen ezaugarrien arabera. Ekitaldiaren tokian eta programatutako egunetan bertan egon izana ziurtatzen duen beste edozein agiri. Hala badagokio, dietak sortzen dituen pertsonak enpresarekin daukan harremana egiaztatzen duen lan-kontratua edo bestelako dokumentu bat.	Ekintzaren egunekin bat datozen egonaldi-egunak, joan-etorriko egunak barnean direla. Langile propioak bakarrik.	Oroharreko dieta, eta gehienez ere: ● 80 euro/egun Espainian. ● eta 90 euro/egun Espainiatik kanpo. Dietak ekintza egiteko behar den egun-kopurua baino ez du hartuko.
Taldeko janariak, enpresaren beraren langile anfitrioiak barne.	Eskainitako zerbitzuen faktura zehaztua edo kuxkako tiketa. Parte-hartzaileen zerrenda, sustapen-ekintzarekin/-programarekin daukaten lotura eta bileraren helburua.	Faktura egiaztatzea (fakturatutako edozein gastu ikustea). Janariaren koherentzia diruz lagundutako ekintzarekin/programarekin.	Fakturaren zenbatekoa, eta gehienez ere: ● 60 euro/pertsona Espainian. ● eta 70 euro/pertsona Espainiatik kanpo.

Gastu-mota	Egiaztagiriak	Egin beharreko egiaztapena	Aukeratu daitekeen zenbatekoa
Azoketan parte hartzearen edo azoketara joatearen ondoriozko gastuak (inskripzioa edo parte hartzeko kanona, kameren edo erakustaltzarrien alokairua, kopen alokairua, eta abar).	Eskainitako zerbitzuen faktura zehaztua edo agiri baliokidea. Organismo ofizialen bidez beste batzuekin elkartuta parte hartuz gero, organismo ofizialaren ziurtagiria. Erakustokiaren argazkiak edo bideoa.	Faktura edo agiri baliokidea egiaztatzea (fakturatutako edozein gastu ikustea). Ziurtagiriaren datuak. Erakusmahaiaren onespena.	Fakturaren zenbatekoa, BEZa kenduta, salbu eta berreskuragarria ez bada. BEZa diruz laguntzeko moduko gastua izango da, baldin eta onuradunak ordaintzen badu eta ez bada berreskuratzea edo konpentsatzekoa. Berreskuratu ezin daitekeen BEZa diruz laguntzeko modukoa izan dadin, onuradunaren merkataritza-peritu batek edo legezko auditore batek egiaztatu beharko du ordaindutako zenbatekoa ez dela berreskuratu eta onuradunaren kontabilitatean gastu modura jaso dela. Beste batzuekin elkartuta parte hartzen den kasuan, ordezkaritza-kanona.
Aretoen, ikus-entzunezko ekipoen eta abarren alokairua.	Hala badagokio, alokairu-kontratua. Eskainitako zerbitzuen faktura zehaztua.	Kontratuaren datuak. Faktura egiaztatzea (fakturatutako edozein gastu ikustea).	Fakturaren zenbatekoa, BEZa kenduta, salbu eta berreskuragarria ez bada. BEZa diruz laguntzeko moduko gastua izango da, baldin eta onuradunak ordaintzen badu eta ez bada berreskuratzea edo konpentsatzekoa. Berreskuratu ezin daitekeen BEZa diruz laguntzeko modukoa izan dadin, onuradunaren merkataritza-peritu batek edo legezko auditore batek egiaztatu beharko du ordaindutako zenbatekoa ez dela berreskuratu eta onuradunaren kontabilitatean gastu modura jaso dela.
Estatutik kanpoko merkatuetako sustapena egiteko gastuak. Kanpoan geratzen da publizitatea eta merchandisinga.	Eskainitako zerbitzuen faktura zehaztua. Sustapen materialaren edo egindako publizitatearen jatorrizkoa. Sustapen-jardueretarako laginik bidaliz gero, sustapen-material gisa erabilitako produktuaren produkzio-kostuaren balorazioa, produktuaren balioa egiaztatzen duten agiriak eskainita; esate baterako, kontratuen edo fakturen kopiak, non pertsona edo enpresa banatzaileari zenbatean saldu zaion azaltzen den.	Faktura egiaztatzea (fakturatutako edozein gastu ikustea). Erabilitako sustapen-materialarekiko adostasuna.	Sustapen-material gisa erabilitako produktuaren kostu justifikatua.
Gutxienez atzerriko hizkuntza batean egindako katalogoak eta ikus-entzunezko materialak (katalogoak, foiletoak, kartelak, etab.). Web-orriak, lineako merkataritzakoak izan ezik.	Eskainitako zerbitzuen faktura zehaztua. Sustapen-materialaren jatorrizkoa.	Faktura egiaztatzea (fakturatutako edozein gastu ikustea). Erabilitako sustapen-materialarekiko adostasuna.	Fakturaren zenbatekoa, BEZa kenduta, salbu eta berreskuragarria ez bada. BEZa diruz laguntzeko moduko gastua izango da, baldin eta onuradunak ordaintzen badu eta ez bada berreskuratzea edo konpentsatzekoa. Berreskuratu ezin daitekeen BEZa diruz laguntzeko modukoa izan dadin, onuradunaren merkataritza-peritu batek edo legezko auditore batek egiaztatu beharko du ordaindutako zenbatekoa ez dela berreskuratu eta onuradunaren kontabilitatean gastu modura jaso dela.

\*OHARRA: gastu guztiek justifikatuta egon beharko dute bankuko justifikazio-agiriekin, edo konpentsazioarekin, kasuan kasu.

## II. ERANSKINA

## ESKABIDEA EGITEKO INPRIMAKIAREN EDUKIA (LEHIATU SUSTAPENA)

Oinarrizko eremuak:

- Titularra.
- Identifikazio-agiriaren mota.
- Zenbakia.
- Izena, abizenak eta sexua (pertsone fisikoentzat bakarrik).
- Entitatearen izena (pertsone juridikoentzat bakarrik).
- Helbidea.
- Lurraldea.
- Telefonoak, helbide elektronikoa.
- Harremanetarako pertsona.
- Legezko ordezkaria, izena, abizenak, telefonoa eta NANa.
- Jakinarazpen- eta komunikazio-bidea.
- Jakinarazpenen hizkuntza.
- Diruz lagundu daitezkeen ekintza motak:
  - Banakako ekintzak.
  - Sustapen-programak.
- Sustapen-proiektua, izenburua.
- Sustapen-gastuak, BEZik gabe.

Eremu osagarriak; erantzukizunpeko adierazpenak:

– Betetzen ditut Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren aginduan ezarritako eskakizunak (agindu hori irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren bidez araututako dirulaguntzak emateko 2019ko deialdia egiteko da eta, dekretu horren bidez, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak arautzen dira – Lehiatu Sustapena Programa–), eta badaukat hori egiaztatzen duen dokumentazioa, zeina Administrazioaren eskura jarriko baitut hala eskatzen zaidanean; eta, halaber, aurreko betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dut laguntza-eskubidea aitortzeak dakarren aldi osoan.

– Gaurko egunera arte, behean ageri diren erakunde publikoei edo pribatuei laguntza eskatu eta haien laguntza jaso duela proiektu honetarako; eta, gainera, konpromisoa hartzen duela aurrerantzean ere proiektu honetarako aurkezten dituen laguntza-eskabide guztien berri emateko (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona):

Egoera	Eskatutakoa (€)	Emandakoa (€)
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ukatuta</li> <li>• Izapidetzen</li> <li>• Emanda</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ukatuta</li> <li>• Izapidetzen</li> <li>• Emanda</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ukatuta</li> <li>• Izapidetzen</li> <li>• Emanda</li> </ul>		

– Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduari lotutako laguntzak lortu dituela, honako ekitaldi fiskal honetan eta aurreko bietan (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona); ..... euro.

– Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua arrantza- eta akuikultura-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2014ko ekainaren 27ko Batzordearen 717/2014 (EB) Erregelamenduari lotutako laguntzak lortu dituela, honako ekitaldi fiskal honetan eta aurreko bietan (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona); ..... euro.

– Enpresa ez dagoela krisialdian, estatuak krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

– Ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomiadunek ematen dituzten izaera bereko laguntzen arloan abian den inongo itzultze- edo zigortze-prozeduratan. (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona).

– Egunean dagoela itzultze- edo zehapen-prozeduretako kopuruak ordaintzeko betebeharrari dagokionez, dirulaguntzen esparruan. Betebehar horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da zorrak atzeratuta eta zatituta badaude, eta, gainera, gaineratutako zor, interes eta gastu guztiak estaliko dituen bermea eratu bada.

– Ez dagoela zigor- eta administrazio-arloko dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ere, sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne hartuta, bat etorri otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin. (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona).

– Ez daukala konkurtso-deklarazioa eskatuta, edozein prozeduratan kaudimengabetzat deklaraturik ez dagoela, konkurtsoan deklaraturik ez dagoela, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren pean ez dagoela edo desgaituta ez dagoela Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitutza-aldia amaitu gabe. (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona).

– Dirulaguntzak lortzeko aukera galduta ez daukala ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak. (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona).

– Kausaren batean errudun deklaratuaz izateagatik administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik ez duela eragin. (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona).

– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daudela Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazka arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo ez dela Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, horietan ezarritako baldintzetan. (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona)

– Ez daukala zerga-egoitzak erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean. (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona).

– Elkarteen kasuan, ez daudela nahastuta horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. zenbakietan aurreikusitako debekuen kausetan. (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona) Ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, administrazio-prozedura ez etetea, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere ebazpen judizial sendorik esleitzen ez bada, haren arabera, kasuan kasuko inskripzioa egin ahal izango baita dagokion erregistroan.

– Ez dagoela berreskuratzeko agindu baten menpe, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela. (Hala da/Ez da hala – markatu dagokiona).

– Enpresa mota: markatu dagokiona:

Enpresa enpresa txiki edo ertain bat dela, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin bat.

– Enpresaren kategoria:

ETE-mikroenpresa (10 enplegatutako baino gutxiago; 2 milioi eurotik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).

ETE-enpresa txikia (50 enplegatutako baino gutxiago; 10 milioi eurotik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).

ETE-enpresa ertaina (2.500 enplegatutako baino gutxiago; 43 milioi eurotik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).

Enpresa ez da ez enpresa txikia ez ertaina, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin bat.

– Enpresaren kategoria, Sozietateen gaineko Zergan edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan islatzen dena, ez dela aldatu.

Halaber, baimen inplizitua eman beharko du Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak automatikoki ziurta dituzan zerga-betebeharrak bete izana eta Gizarte Segurantzako ordainketak egin izana; baimen hori berariaz ukatzeko aukera izango du, eta, kasu horretan, eskatzaileak aurkeztu beharko du dagokion ziurtagiria edo eskatutako agiria.

Enpresaren datuak:

– Helbide fiskala.

– Jarduera nagusia eta lortutako produktuak.

– Erabilitako lehengaiak.

– Sustatutako produktua.

Sustapen-proiektuaren datuak:

– Diruz lagundu daitezkeen ekintza motak.

– Eskatutako eta egin beharreko jarduerak.

– Ikus-entzunezko katalogo eta materialak.

## III. ERANSKINA

## LAGUNTZA-ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua 1. paragrafoaren a), b), c) eta d) apartatuetan aurreikusitako subjektuek:

- Ahalordetze-eskritura.
- Entitatea eratzeko eskritura eta estatutuak, dagokion erregistroak zigilatuak.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiria, baimenari espresuki uko egin bazaio bakarrik.

Pertsona fisikoek:

- NANaren kopia, baimenari espresuki uko egin bazaio bakarrik.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiria, baimenari espresuki uko egin bazaio bakarrik.

Eskatzaile guztientzat:

- Hirugarrenen alta-agiria, azken bost urtean ez bada Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarik jaso.
- Eskatutako jarduera bakoitzaren «fitxa-txostenak» betetzea, laguntza honen web-helbidean eskatutako ereduaren arabera.

– ETEa dela egiaztatzen duen dokumentazioa:

• Pertsona fisikoek:

- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kopia, eskaera aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiarena.
- Eskaera aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiari dagokion ekonomia-jardueren eranskina.

• Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua 1. paragrafoaren a), b), c) eta d) apartatuetan aurreikusitako subjektuek:

- Eskaera aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiari dagokion sozietateen gaineko zergaren kopia.
- Dokumentazioak erakusten duen egoera aldatu ez dela dioen adierazpena.

Edonola ere, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidetzeko beharrezko irizten dituen bestelako argibide edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.